# Anaitasuna Ikastola HLHI Urteko Planaren Memoria

## 2017-18

**2017**

**2018**

# Aurkibidea índice

1. Sarrera eta justifikazioa x
*introducción y justificación*

2. Helburu orokorrak eta jardueren ebaluazioa
*evaluación objetivos generales y planificación de actividades*

2.1. IUPean proposatutako helburuen lorpen maila eta garapena x
*desarrollo y grado de logro de los objetivos propuestos en el PAC*

2.2. Ikasleriaren ikaskuntza-prozesuen ebaluazioa x
*evaluación de los procesos de aprendizaje del alumnado*

3. Irakaskuntza-jardueren programaren ebaluazioa
*evaluación del programa de actividades docentes*

3.1. Ohiko irakaskuntza-jardueren programaren ebaluazioa
*evaluación del programa de actividades docentes ordinarias*

3.1.1. Antolaketa eta funtzionamenduaren aspektuak x
*aspectos de organización y funcionamiento.*

3.1.2. Esperientziak, programak eta proiektuak x
*experiencias, programas y proyectos*

3.1.3. Prestakuntza eta garapen profesionala x
*formación y desarrollo profesional*

3.1.4. Irakasleriaren koordinazioa x
*coordinación del profesorado*

3.2. Irakaskuntza-jarduera osagarrien programaren ebaluazioa X
*evaluación del programa de actividades docentes complementarias*

4. Eskolaz kanpoko jardueren planaren ebaluazioa. X
*evaluación del plan de actividades extraescolares*

5. Eskolako zerbitzuen ebaluazioa X
*evaluación de los servicios escolares*

6. Ekonomi-kudeaketarako planaren ebaluazioa X
*evaluación del programa de gestión*

7. Hezkuntza-komunitateari informazioa helarazteko planaren ebaluazioa X
*evaluación del plan información a la comunidad educativa*

8. IUPren garapenaren jarraipenaren ebaluazioa. X
*evaluación del desarrollo del desarrollo del plan anual*

9. Ondorioak eta hobekuntza proposamenak. X
*conclusiones y propuestas de mejora*

10. Eranskinak X
*anexos*

# 1. Sarrera introducción

☐ **Ikasturteko planaren garapenean eragina izan duten aspektu edotata faktoreak** *Aspectos y/o situaciones que han determinado el desarrollo del plan anual.*

–

- **Egiteko prozedura eta lan-metodologia** *Proceso de elaboración y metodología utilizada*

Hemen azaltzen ditugu memoria antolatzearekin, egitearekin, idaztearekin, onartzearekin eta hedatzearekin lotuta dauden zenbait zeregin, eta haietan esku hartu duten pertsonen eta taldeen berri ere ematen dugu.

**ZUZENDARITZA TALDEA:**

- Zuzendaritza taldeak Urteko Memoria egiteko jarraitu behar den prozesua zehaztu eta horren berri ematen du:

  *Urteko Memoriaren edukiei buruzko eskema egiten du.*
  *Zer taldek parte hartuko duten zehazten du.*
  *Talde bakoitzak zer funtzio eta zeregin izango dituen zehazten du.*
  *Parte-hartzea bermatuko duten baliabideak zehazten ditu*
  *Jarduera bakoitzerako epeak egutegi batean zehazten ditu.*
- Informazioa biltzea eta hartaz baliatzea.
- Memoria  egiteko parte-hartzea koordinatu eta dinamizatu.
- IUPi dagokionez, zuzendaritza taldeari dagozkion helburuak ebaluatzea.
- Zenbait iritzi formulatzea.
- Ondorioak azaltzea eta hobekuntza-proposamenak egitea.
- Ekarpen guztiak oinarri hartuta, sintesi bat egitea, hurrengo ikasturterako IUP egitean kontuan hartu beharreko hobekuntza-iradokizunak azpimarratuz.
- Behin betiko memoria idaztea eta haren berri ematea, hura eskola-elkartearen nahiz administrazioaren eskura jarriz.

**OOG:**

- OOGren beraren funtzionamendua ebaluatzea.
- Memoria osoa aztertzea eta onartzea.
- Ondorioak azaltzea eta hobekuntza-proposamenak egitea.

**IRAKASLEAK:**

- IUPi dagokionez, haiei dagozkien helburuak ebaluatzea, ondorioak eta hobekuntza-proposamenak adieraziz.
- Irakasle bakoitzak bakarka parte hartzeaz gain (norberaren ikasleak, norberaren irakasle lana ebaluatuz...), irakasle-taldeak zikloen eta departamentuen bidez ere parte hartuko du: ikasgelarako programazioa, ICPrekiko egokitzea, gorabeherak, ikasleen emaitza akademikoen azterketa, NCE. Hobekuntza proposamenak ere egingo dituzte.

**KOORDINAZIO PEDAGOGIKORAKO BATZORDEA:**

- Memoria  egiteko lanetan parte hartzea, datu adierazgarriak aztertzea eta hobekuntza-proposamenak egitea.
- Memoria  egiteko prozesua dinamizatzea zikloetan eta batzordeetan.
- IUPi dagokionez, haiei dagozkien helburuak ebaluatzea, ondorioak eta hobekuntza-proposamenak adieraziz.

**GAINERAKO BATZORDEAK:**

- IUPi dagokionez, haiei dagozkien helburuak ebaluatzea, ondorioak eta hobekuntza-proposamenak adieraziz.

**IKASLEAK:**

IUParen memoria egiterakoan ikasleriari ikastetxearen funtzionamenduari buruzko eta euren parte hartzeari buruzko balorazioa egiteko eskatu zaio.

**GURASO ELKARTEA:**

IUParen memoria egiterakoan guraso elkarteko partaideei ikastetxearen funtzionamenduari buruzko eta euren parte hartzeari buruzko balorazioa egiteko eskatu zaie.

☐ **Hezkuntza-komunitatearen ekarpenak** *Participación y aportación de datos de la comunidad*

| | bai | ez | zer-nola *qué-cómo* |
|---|---|---|---|
| Klaustroa *claustro* | X | | |
| Batzorde pedagogikoa *Comisión Pedagógica* | X | | |
| Zikloetako taldeak *Equipos de ciclo* | X | | |
| Mailetako taldeak *Equipos de nivel* | | | |
| Departamentuak *Departamentos didácticos* | X | | |
| Proiektuen arduradunak *Responsables de proyectos* | X | | |
| Zikloetako koordinatzaileak *Coordinadores/as ciclos* | X | | |
| Ikasleriaren ordezkariak *Delegados/as del alumnado* | X | | |
| Familien ordezkariak *Respresentantes familias* | X | | |
| Admin. eta Zerbitzuen langileria *Personal Adm. Serv.* | X | | |
| Zuzendaritza taldea *El equipo directivo* | X | | |
| Entrepresak-erakundeak *Empresas-instituciones* | | | |
| Beste batzuk *Otros (identificar quiénes)* | | | |

Hezkuntza komunitatearen ekarpenak jasotzeko Memoriako tresnak erabili ditugu.

☐ **Datorren ikasturtean jarraipena izango duten urteko planaren aspektuak** *Aspectos del plan anual que deberán tener continuidad en el próximo curso.*

## 2.1. Helburuen lorpen maila eta garapena desarrollo y grado de logro de los objetivos

**TALDEA** *GRUPO* **ZENTROKO HELBURU OROKORRAK *(ZUZENDARITZA TALDEAK)***

| **HELBURUAK** | **EKINTZAK** | **Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila.** *Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.* | **Hobekuntzarako proposamenak** Propuestas de mejora |
|---|---|---|---|
| **EKIMEN GLOBALA<br>+<br>HOBEKUNTZA PLANAREN GARAPENA** | Zientzia-,teknologia-eta osasun-kulturarako konpetentziari dagozkion dimentsioak landu eta hobetu ikasleengan:<br>● Irakasleek prestakuntza jaso<br>● Ebaluazio Diagnostikoko frogak aztertu<br>● Dimentsio desberdinak lantzeko jarduerak prestatu:<br>○ Esperimentuak egin<br>○ Gaiekin lotutako testu zientifikoak aurkitu eta ikasleekin batera landu.<br>○ Konpetentzia hau ebaluatzeko ditugun tresnak aztertu<br>○ Ikastetxetik kanpo ere konpetentzia honekin lotutako jarduerak egitea (Albaola, museoak,eroski..) | - **Irakasleen prestakuntza:**<br>● Prestakuntza hau ondo baloratu da.<br>● Emandako edukinen eta praktikaren arteko lotura ikusi da.<br>● Baliabideak eskeini dira.<br>● Adibide praktikoak egin dira.<br><br>**-** Ebaluazio diagnostikoko frogak eta gure ebaluatzeko tresnak aztertu.<br>● Ebaluazio diagnostikoko froga ziklo desberdinetan aztertu dira.<br><br>- Esperimentuak egin eta programazioetan txertatu<br>● Ikasturtean zehar esperimentu desberdinak egin dira.<br><br>- Testu zientifikoak aurkitu eta ikasleekin landu<br>● Txanelak eskeintzen dituen testo | - **Irakasleen prestakuntza**<br>● Ziklo bakoitzerako edukien egokitzapena.<br>● Esperimentuak zikloka sailkatzea.<br>● Txanelan lantzen diren esperimentuak aztertzea.<br><br>**-** Ebaluazio diagnostikoko frogak eta gure ebaluatzeko tresnak aztertu<br>● ED-ko edo beste iturri batzuetako frogak begiratu eta aprobetxagarria dena gure azterketetan txertatu.<br><br>-Esperimentuak egin eta programazioetan txertatu<br>● LH1: Txanelak proposatzen dituen esperimentuak aztertu eta metodo zientifikoaren bidez landu.<br>● LH2: Zikloan esperimentua azaltzeko formatua adostu.<br>● LH3: Esperimentuak metodo zientifikoaren bidez egiten jarraitu.<br><br>- Testu zientifikoak aurkitu eta ikasleekin landu |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | | zientifikoak aztertu dira eta egokiak ikusten dira.<br><br>- Irteeren balorazioa ekintza osagarrietan egina dago. | ● Txanelako testu zientifikoak erabili.<br><br>- Irteeren balorazioa ekintza osagarrietan egina dago.<br><br>4. lehentasuna esperimentuak aurrera eramateko txantiloiak adostu eta maila bakoitzean esperimentu bateko diseinua egin: egitura eta froga. |
| **PRESTAKUNTZA EKIMEN GLOBALA (PEG)** | **1.** Konpetentziak garatzen laguntzeko markoa:<br>● Formazioa jaso.<br><br>● Sekuentzia didaktikoak berregin arazo-egoerak txertatuz. | - **Marko orokorraren formazioa:**<br>● Orokorrean formazio hau ez zen oso ondo baloratu. Hala ere egon ziren ondo egindako gauzak ere.<br>● IKT baliabideen azalpena.<br>● Irakaslearen jarrera eta interesa.<br>● Emandako azalpenak argiak izan ziren.<br>-**Unitate didaktikoak:**<br>● Unitate bat egin da ikasturtean zehar. | - **Marko orokorraren formazioa**<br><br>● Unitate didaktiko bat sortzea.<br>● Beste ikastetxe batzuetako praktikak oinarritzat hartuz, aldaketak egiten hastea.<br><br>- LH1, LH3: Egindako unitatea baloratu, hurrengoak egiten jarraitzeko.<br>-LH2:<br>1.- Datorren ikasturteko planean Ekimen globaleko Berritzeguneko formakuntzak dira lehentasuna dutenak: Matematika formakuntza eta Irakurriaren ulermena formakuntza. |
| **HOBEKUNTZA PLANA** | Hizkuntza komunikaziorako konpetentziaren idazmen dimentsioa hobetzea:<br>● Mailaka diagnostikoa egin,horretarako proiektu bakoitzean (Euskara eta gaztelania) lantzen den testu mota zehaztu.<br>● Ebaluazio Diagnostikoan agertzen diren ebaluazio irizpideak aztertu (3 blokeak)eta erabakiak hartu<br>● Testuak ekoizteko Ebaluazio Diagnostikoak planteatzen dituen | - **Mailaka diagnostikoa**<br>● Diagnostikoa egin da eta ziklo batzuetan aldaketa batzuk egin dira.<br>**- Ebaluazio irizpideak aztertu eta erabakiak hartu**<br>● Aztertu eta gero, Irizpide batzuen beharra ikusten da, baina moldatu egin behar dira. | **- Ebaluazio irizpideak aztertu eta erabakiak hartu**<br>● Ebaluazio irizpideak era sinpleagoan ipìni, blokeak kontutan hartuta eta 1. Ziklorako adinari dagozkion moldaketak egin.<br>● Ortografia arauak adostu ziklo barruan eta zikloen artean. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | argibideak aztertu eta erabakiak hartu | **- Ekoizteko ikasleei argibideak eman.**<br>● Ditugun argibideak aztertu ditugu, | **- Ekoizteko ikasleei argibideak eman.**<br>● Argibideei dagokionez, LH 1an argibideak sortu, 2. Zikloan txanelak eskeintzen dituenak dokumento batean bateratu ( 3 lehentasuna)eta 3. Zikloan txanelak eskeintzen duen moduan egoki ikusten dira |
| **ICP-a GARATZEN JARRAITZEA** | ● Ahozko adierazmena euskaraz lantzeko jarduerak prestatu (mailaka)<br>● Buruzko kalkulua sistematikoki landu.Horretarako eginda dagoen denboralizazioa irakurri eta beharrezkoa ikusten bada, aldaketak egin | - **Ahozko adierazmena** lantzeko ikasturtean zehar egin diren jarduerak dokumentu batean jasota daude.<br>- Ekintza hoiek orokorrean gauzatu dira, eta ondo baloratu dira.<br>- **Buruzko kalkulu**ko denboralizazioak irakurri dira eta beharrezko aldaketak egin dira | ● LH1: aurten proposatu diren jarduerak mantendu bai ahozko adierazmenean eta baita buruzko kalkuloan.<br>● LH1: datorren ikasturtean kontzientzia fonologikoko materiala osatzea proposatzen da.<br><br>● LH3:Prestatutako materiala erabili ahal den neurrian.<br>● LH3: Buruzko kalkulua trebatzen jarraitu.<br>● Koordinazio bertikala. |
| **ESKOLAKO BIZIKIDETZA PROIEKTUA GARATZEN JARRAITZEA** | Tratu txarren aurrean hezkuntza esku-hartze sistematiko eta proaktiboa gauzatu:<br>● lehen esku-hartze maila:<br>○ Lehen Hezkuntzan, banakako tutoretzak eta postontziak ezarri<br>○ Tutoretza saioak antolatu.<br>○ Ni eta eskola autoinformea sistematikoki geletan pasatu<br><br>● Programa diseinatu.<br>○ Neurriak adostu<br>○ Protokoloa zehaztu<br>○ Materiala bildu eta antolatu.<br>● BIZIKASI ekimenaren inguruko formazioa<br><br>● Talde dinamizatzailea sortu<br><br>Ikastetxeko hezkidetza plana diseinatzen jarraitu:<br>● Jolastokiko erabilerari buruzko | - **Postontziak** ez du erabilera egokirik izan baina interesgarri ikusten da erabiltzen jarraitzea.<br>- **Banakako tutoretzak** egin dira, baina ez beti ordu lektiboen barruan. Lehenengo zikloan ikasturtean zehar malgutasunez egiten joan dira. Egoki ikusten da datorren ikasturtean egiten jarraitzea.<br>- **Tutoretza saioen** antolaketa<br>● Materiala topatzen aritu gara tutoretza saioak egiteko. 1.zikloan bukatu dute lana eta beste zikloetan zerbait topatu dute.<br>● Talde dinamizatzaileak material berezia sortu du jazarpen egoerak ematen direnean erabiltzeko.<br>● Egokia ikusten da “ adimen emozionala” eta “ gizagune” materiala mailaka izatea.<br>● **Tutoretza plana:**Bestalde, IK/KI-ko eta elkarbizitzako dinamikak tutoretza | - **Postontziak:**<br>● Hurrengo ikasturteari begira ikasleekin erabilera egokia lantzea proposatzen da.<br><br>-<br><br>- **Tutoretza plana**:<br>● Datorren ikasturtean osatzea eta behar diren aldaketak egitea |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | proposamen berriak aztertu eta adostu<br><br>● 4. eta 6.mailako ikasleek sexualitate tailerrean parte hartu | planean txertatzen joan gara<br><br>- **Ni eta eskola** autoinformea ondo baloratu da.<br><br>"Berdinen arteko tratu txarrei aurre egiteko **programa**" adostu da.Talde dinamizatzaileak izango du bere karpetan. Zikloetako karpetan ere sartuko dugu.<br>-Materiala bildu eta antolatu da.<br>- **Bizikasi** ekimenaren inguruko formazioa zuzendariak eta irakasle batek jaso dute. Oso ondo baloratu da.<br>- **Talde dinamizatzailea** sortu da<br><br>- **Jolastokia:** "B" patioan 5 une jarri dira. Ikasleek ondo baloratu dute.<br>"Patioko antolaketa" dokumentu batean jasota dago.<br><br>L.H2:- Sexualitate tailerra: umeak gustura egon dira, parte hartu dute asko galdetu dute. Balorazio positiboa izan da.<br><br>LH3: 6.mailan ikasleak gustura ibili dira. | proposatzen da, IK/KI batzordearekin batera<br>- **Ni eta eskola** autoinformea<br>● Datorren ikasturtean bi momentutan pasatzea erabaki da.<br>-Programa, ikasturte hasieran irakasleei azalduko zaie eta aurrera eramango da.<br>-Talde dinamizatzailea materiala biltzen eta formatzen jarraituko du.<br><br>- **Talde dinamizatzailea:**<br>● Datorren ikasturtean talde dinamizatzailea berritzea.<br><br>- **Jolastokia:**<br>● Datorren ikasturtean arauekin hasiko gara.<br><br>- Sexualitate tailerra:Tailerra mantentzea 4. mailan eta baita 6.mailan ere. |
| **IKASTETXEKO HEZKUNTZA PROIEKTUAREN BERRIKUNTZA** | Antolamenduaren esparrua garatu | - Garatu dugu eta OOGak onartu du. | |
| **IKASTETXEKO HIZKUNTZA PROIEKTUAREN DISEINUA** | Ikastetxearen hizkuntza helburuak OOG-an onartu:<br>● 2016-17an klaustroan onartutako helburuak horretarako sortutako guraso taldeak aztertu | - OOGak onartu du. | ??????????? |
| **IKASTETXEKO IKT PROIEKTUA GARATZEN JARRAITU** | Pasadan ikasturtean sortutako curriculum dokumentua osatu | LH3: Aldaketak egin dira | - 3. eta 4. mailetan Wifia jartzea geletan, ordenagailuekin lan egin ahal izateko.<br>- Proiektuen barruan txertatu ordenagailuz egiten diren lanak: |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | Irakasle berriei IKT baliabide eta tresnen erabileraren azalpena eman:<br>● Sarea, ikastetxeko funtzionamendua<br><br>Ikastetxe barruko formazioa:<br>● weg gunea<br>● blog-era igoerak<br>● argazkiak, bideoak...kudeatzeko programa (movie maker)<br>● slideshare<br>● issura igoerak<br><br>Proiektu bakoitzean zehaztu blog-era igoko diren ekintzak eta U.didaktikoetan txertatu | - Ikasturte hasieran IKT koordinatzaileak eman zuen<br><br>- Bigarren formakuntza hau zikloko koordinatzaileak eman du beharren arabera.<br><br>- Lehenengo eta bigarren zikloan blogera egin diren igoerak jardueren txantilloian jasota daude. 3. zikloan aldiz IKT proiektuan zehaztuta daude. | word, power point.<br>- 3.zikloan geletan dauden ordenagailuak berriztea (ezin dira eguneratu).<br><br>- Irakasle berriei urtero sistematikoki formakuntza eman<br><br>LH3: Aldaketarik balego txertatu. |
| **ESKOLA INKLUSIBOAREN ESPARRUAN ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLAN ESTRATEGIKOA GARATZEN JARRAITU** | **IKASKUNTZA KOOPERATIBOAREN** ezagutza eta aplikazioa ikastetxean orokortu.Honetarako hasiera eta orokortze fasean dauden irakasleen formakuntzak bermatu.<br>● OROKORTZE FASEA (iaz sentsibilizazio fasea burutu zuten irakasleek)(4 tutore)<br>● HASIERA FASEA (aurten IK-KI aplikatzen hasiko diren irakasleek)( 5 tutore)<br><br>-1.4 blokeko dinamikak geletan frogatu ondoren mailaka sailkatu.<br>( tutore **guztiek**)<br><br>-16/17ikasturtean sakontze faseko irakasleek frogatu zituzten egitura espezifikoak( zenbakia, zalantzen zakua eta galdera-katea) **orokortze** fasekoek geletan frogatu.<br><br>-Maila bakoitzean proiektu bat "buru-hausgarria" teknikaren bidez gauzatu.( tutore **guztiek).** | - **Formakuntza**<br>● Hasiera fasekoak 3 formakuntza saio izan dituzte.<br>● Orokortze fasekoak saio 1<br>● Informazioa batzordetik bideratu da.<br><br>- **Dinamikak**<br>● Dinamikak frogatu eta sailkatu dira.<br><br>- **Egiturak**<br>● Irakasleak buru-hausgarria teknikarekin ibili dira eta egitura espezifikoak lantzeko denborarik ez dugu izan.<br>● Maila bakoitzean proiektu bat buru- | - LH1 ekoek irakasle berrien formakuntzan IK/KI ren kontzientziazio beharra gehiago lantzea proposatzen dute.<br>- Batzarrak ziklo guztiak elkartuta egitea proposatzen dute eta bertan zikloko guztiak egotea.<br>- Espezialistak gehiago inplikatzea proposatzen da, planak egiteko orduan<br><br>-**Dinamikak**<br>● Elkarbizitza batzordekoekin batera sortu den tutoretza planeko dokumentua frogatu eta behar diren aldaketak egin.<br>--**Egiturak**<br>● 17/18 ikasturtean aztertu ez diren egitura espezifikoak sakontze faseko irakaslegoaren artean zabaldu. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| | -" Ikerketa taldeak" teknika ezagutu eta frogatu( **sakontzeko** tutoreak)<br><br>-Ikastetxe mailan IK/KI ren inguruko erabaki batzuk hartu.<br><br>-HHko tutoreak, planak nola gauzatuko dituzten zehaztu. | hausgarria teknikaren bidez gauzatu da.<br>● Ikerketa taldeak teknika ez dugu ezagutu, berritzegunean beste gai batekin ibili garelako.<br><br>- **Erabakiak**<br>● Erabakiak hartu dira eta dokumentoan jasota daude.<br>- **HH** | ● Buru-hausgarria teknikaren bidez egin diren proiektoak berrikusi eta aldaketak egin behar baldin badira hoiek gauzatu.<br>● Matematikan egitura gehiago egitea proposatzen da.<br>- **Planak**<br>● Planak eta errubrikak gainbegiratu.<br><br>-Ikastetxeko IK/KI proiektoa garatzen jarraitu. |

## 2.1. Helburuen lorpen maila eta garapena desarrollo y grado de logro de los objetivos

| TALDEA *GRUPO* | HAUR HEZKUNTZA |
|---|---|

| HELBURUAK | EKINTZAK | **Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila.** *Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.* | **Hobekuntzarako proposamenak** Propuestas de mejora |
|---|---|---|---|
| **HOBEKUNTZA PLANAREN GARAPENA** | Hizkuntza komunikaziorako konpetentziaren irakurmen dimentsioa hobetzea:<br>● 5 urtekoen Irakurmen-ulermen prozesua neurtzeko tresna aztertu eta egin beharreko aldaketak egin.<br>● Hizkuntza txokoetan (4 eta 5 urte) erabiltzeko material berria sortu | ● Aztertu eta egokitu egin da.Banan banan pasatu beharrean talde osoan landu da.<br>● Hizkuntza txokoa material berriarekin hornitu da.(erosi eta egin) | |
| **ICP -A GARATZEN JARRAITZEA** | **1. Sortutako Hizkuntza** minimoak sistematizatu<br>**2.** Memorian jarrita dago:<br>● Akatsak zuzendu:<br>○ Ikasleei :momentuan<br>○ Familiei :Hilero akats baten zuzenketa prestatu etxeetara bidaltzeko<br>**3.** Curriculum-a irakurri | 1.Landu dira nahiz eta ez sistematizatu.<br>2.Akatsak<br>● ikasleei:bai<br>● familiei:hilero bidali ez arren, egin da<br>3.curriculum-a irakurri da | |
| **ESKOLA INKLUSIBOAREN ESPARRUAN ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLAN ESTRATEGIKOA GARATZEN JARRAITU** | ● Planak nola gauzatuko ditugun zehaztu.<br>● Dinamikak eta egiturak erregistratu( mailaka eta sistematikoki egin. | ● Eginda dago | |
| **ZIKLOKO DOKUMENTAZIOAREN EGUNERATZEA** | ● Familiekin elkarrizketak jasotzeko txantiloia aldatu.<br>● Informeak aldatu | ● Eginda dago<br>● Eginda dago | ● Datorren ikasturtean aldatutako informeak martxan ipini beharko dira.<br>● Ziklo bukaerako norbanakako txostena sortu. |

## 2.1. Helburuen lorpen maila eta garapena desarrollo y grado de logro de los objetivos

**TALDEA** *GRUPO* **LAGUNTZA ZERBITZUA**

| **HELBURUAK** | **EKINTZAK** | **Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila.** *Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.* | **Hobekuntzarako proposamenak** Propuestas de mejora |
|---|---|---|---|
| - 4. mailan kontzientzia fonologikoko materiala prestatu. | -Txanelaren proiektuekin lotuta materiala sortu | - Materiala osatzen hasi ginen baina ez da bukatu lehentasuna bigarren helburuari eman zaiolako eta denbora faltagatik. (Ebaluaketa saioak, formakuntzak, bilerak eta kooordinazioa lanak) | |
| - Mailaka materiala prestatu, Ikasle berriak datozenerako. | -Mailaka froga ezberdinak sortu. | - Berritzeguneko materiala bildu da eta kontutan hartuko da froga horiek prestatzeko . | - Mailaka bukaerako frogak eskatu berritzegunekoekin kontrastatu eta geureak sortu. |

**TALDEA** *GRUPO* **MUSIKA**

| **HELBURUAK** | **EKINTZAK** | **Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila.** *Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.* | **Hobekuntzarako proposamenak** Propuestas de mejora |
|---|---|---|---|
| - Arloko minimoen hiztegia sortu (mailaka) | - Txanelaren proiektuekin lotuta hiztegia sortu. | 4., 5. eta 6. mailako hiztegiak sortu ditut. Erabilgarriak direla ikusi da. | 3. mailako hiztegia sortu. |

## 2.1. Helburuen lorpen maila eta garapena desarrollo y grado de logro de los objetivos

**TALDEA** *GRUPO* **IKASTETXEKO AGENDA 21**

| HELBURUAK | EKINTZAK | Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila. *Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.* | Hobekuntzarako proposamenak Propuestas de mejora |
|---|---|---|---|
| **BIODIBERTSITATEAREN INGURUKO SENTSIBILIZAZIO KANPAINAK ANTOLATU** | 1. Ortuan egiten diren landaketak ikastetxean bertan egitea eta txokotxo bat jartzea denon eskura. "Huerto urbano" deritzon mahai bat jarriz.<br><br>2.- Intsektuen etxea errebisatu, eta intsektuak aztertu, bertan balegoz. | 1. 3. hiruhilabetean 4 urteko gela batean jarri da mahaia lurrarekin eta letxugak eta zerbak landatu dira 6. mailako ikasleen laguntzaz. 4 urteko ikasleek zainketaz arduratu dira.<br><br>2. Ortuan dugun "intsektuen etxea " ez dugu bisitatu, aurten oso eguraldi euritsua izan dugulako , honen ordez, gaia lantzen egon direnean zetarrak eraman ditugu gelara bertara. | 1. Beste gela edo txoko batzuetan jartzea , mahai bat ziklo bakoitzean izatea.<br><br>2. Eguraldiak lagunduz gero, aztertu ortuan ikus daitezkeen intsektuak. |
| **HERRIKO SAN MARTIN AZOKA IKASTETXETIK BULTZATZEA ETA SASOIKO PRODUKTUEN GARRANTZIAZ OHARTZEA** | "San Martin txiki" erakusketa egin ikastetxean eta honen berri eman gurasoei. Arratsaldez konbidatu gurasoak erakusketa ikustera etortzeko. | Ondo joan da erakusketa, ikasleak ateratako produktuak ikusi, ukitu eta usaintzeko aukera izaten dute.<br>Iaz baino guraso gehiago etorri ziren arratsaldez, baina oso gutxi izan ziren. | Erakusketan produktu ezberdinak egotea, ortuan ekoiztutakoak, ikasleak landutakoak eta jasotakoak.<br>Erakusketaren propaganda gehiago egitea,Euskal Birusa elkarteari honen berri eman edota Drogoteniturri aldizkarian azaldu. |
| **ERREKAK ETA IBAIAK GAIA LANTZEN HASI** | 1.- Sensibilizazio iharduerak URDAIBAI BIRD CENTER irteera.<br><br>2.- Ermuko inguruko errekak eta iturriak aztertu. | 1. 25 ikasle joan ginen irteerara 4., 5. eta 6. mailatik, ekintza aberatsa izan zen eta ondoren 6. mailako ikasleek irteeraren power pointa prestatu zuten geletan azaltzeko.<br>2. 2. eta 4. mailako ikasleak erreka aztertzeko tailerra izan dute eta 3. zikloko Agenda 21eko ordezkariekin Urtia erreka aztertzera joan gara, analisi ezberdinak eginez: nitratoa, pha, fosfatoa, oxigenoaren saturazioa... | 1. Horrelako irteerak egiten jarraitzea.<br><br>2. Gaiarekin bat datozen ekintza ezberdinak egitea ikasleekin. |

**TALDEA** *GRUPO*

| INGELESA |
|---|

| HELBURUAK | EKINTZAK | **Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila.** *Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.* | **Hobekuntzarako proposamenak** Propuestas de mejora |
|---|---|---|---|
| **ELEANIZTASUN PROIEKTUA GARATZEN JARRAITU** | 1.mailako PLASTIKA ingelesez arloko programazioa osatu. | 1.mailako PLASTIKA ingelesez arloko programazioa osatu da eta 2.mailakoa ere osatu da lana aurreratuz. | ELEANIZTASUN PROIEKTUAren garapenarekin ezin izango degu jarraitu, irakasle bat gutxiago dugulako.<br>Datorren kurtsoan datozen irakasle berrien formakuntza ziurtatzen saiatzea ezinbestekoa ikusten da. |

**TALDEA** *GRUPO*

| GORPUTZ HEZKUNTZA |
|---|

| HELBURUAK | EKINTZAK | **Ondo egindakoa. Helburuen lorpen maila.** *Aspectos a destacar. Grado de logro de los objetivos.* | **Hobekuntzarako proposamenak** Propuestas de mejora |
|---|---|---|---|
| **ESKOLA INKLUSIBOAREN ESPARRUAN ANIZTASUNARI ERANTZUTEKO PLAN ESTRATEGIKOA GARATZEN JARRAITU** | Ikastolan egiten diren jaialdi guztietan jolas kooperatiboak egitea (Euskararen Eguna, gabonak )<br><br>Jolas kooperatiboen sailkapena 1.zikloan ere egitea | Ikasturte honetan ikastetxeko jaialdi guztiak era kooperatiboan egin dira.<br><br>Ezin izan da sailkapen hori bukatu. | Hurrengo urteetako GHko beste irakaslearekin koordinatzeko saio bat izatea. |

## 2.2. Ikaskuntza-prozesuen ebaluazioa procesos de aprendizaje del alumnado *(B.P.koak 9.tresnaren azterketa egin ondoren)*

| **Aztertutako esparrua**[1]<br>Ámbito o aspecto analizado | **Egoeraren azterketa. eta zergatien laburpena**<br>Análisis de la situación y síntesis de las causas | **Hobekuntza eta jarraipenerako prosamenak**<br>Propuestas de mejora - continuación |
|---|---|---|
| 1. Euskara: Ahozko adierazmena. | **Euskara:**<br>– Ikasleek ez dute euskaraz hitz egiteko ohiturarik, ez dute euskara erabiltzeko beharrik ikusten, euren eguneroko hizkuntza erdara da eta.<br>– Bizipenak, emozioak…adierazteko zailtasun handiak dituzte<br>– Hiztegi falta, egitura desegokiak, koherentzia…<br>– Ahozkotasuna lantzeko ez dago tarte finkorik ezta ekintza zehatzik.<br><br>– 2. Mailatik 3. Mailara pasatzen direnean euskerarik ez dute egiten.<br>– Euskera ikastolarekin lotzen dute.<br>– Erlazioak gazteleraz egiten dituzte. | – Eskolako agente desberdinak gai honen inguruko hausnarketa egin eta neurriren batzuk adostu eta konpromisoak hartu<br>– Adierazmena lantzeko plangintza bat mailaz maila egin.<br>☐ Solasaldietarako tarteak sistematikoki jarri.<br>▪ Bikoteak egin eta zerbait eztabaidatu.<br>▪ Irudi bat eman eta bertan dagoena azaldu.<br>☐ Egunero albiste bat kontatu..<br>☐ Proiektu bakoitzean aukeratu ataza batzuk ahozko aurkezpenak egiteko (gelakideei edo gelatik kanpo bete ikastalde batzuei).Gidan eta programazioetan adierazi.<br>☐ Hiztegia lantzeko hitz jolasak egin.<br>☐ Antzezlanak egin.<br>☐ Txanelako proiektuen ahozko aurkezpena egin eta txoko zurira ekartzen den materialaren azalpena ahoz eman.<br>☐ Notetan eragin positiboa : euskeraz hitzegiten duenari puntu positibo bat ipini.<br>☐ Euskeraren erabilerarako egoerak sortu: kirol ekintzak.<br>☐ Komunikazioa helburua duten egoerak sortu: mailen arteko ekintzak.<br><br>– Irakaslego guztia inplikatzea.<br>– Haur Hezkuntzan:<br>☐ Hizkuntza minimoak sistematizatu.<br>☐ Akatsak zuzendu:<br>▪ Ikasleei: momentuan<br>▪ Familiei: Hilero akats baten zuzenketa idatziz bidali etxeetara. |
| 2.- Koordinazio bertikala. Minimoen finkapena | - Ebaluatzerakoan irizpide bateratuen falta ikusten da.<br>- Minimoak ere ez ditugu argi. | - Data batzuk zehaztu zikloan adostasunetara heltzeko, ebaluatzeko orduan denak berdin jokatzeko. |

| | | |
|---|---|---|
| 2. Matematika: Buruketetan zailtasunak<br><br>3. Idazmena: Idazterakoan zailtasunak bi hizkuntzatan. | | - 2. Ziklo( datorren ikasturtean aukera desberdinak aztertu)<br>    o Talde homogeneoak erabili.<br>    o 1,2,4 egitura erabili.<br>    o “ Uno para todos” egitura frogatu.<br>- 3. Ziklo( datorren ikasturtean aukera desberdinak aztertu)<br>    o Gelan bakoitzak bere buruketa egin eta 1,2,4 ( edo los números) egitura erabiliz zuzendu.<br>    o Talde homogeneoak erabili.<br>    o Noizbehinka etxera bidaltzeko aukera izan. |

## 3.1.1. Ikastetxearen funtzionamendu atalak aspectos de funcionamiento general del centro (zuzendaritzak)

☐ **IUPean planifikatutakoa kontuan hartutik funtzionamendurako alderdi orokorren balorazioaren laburpena eta ondorioak**
*Volcado y conclusiones de la valoración de aspectos generales de funcionamiento, tomando como referencia lo planificado en el PAC*

| | **Alderdi positiboak**<br>*Aspectos positivos* | **Zailtasunak**<br>*Dificultades* | **Zergatiak**<br>*Causas* | **Hobekuntza proposamenak**<br>*Propuestas de mejora* |
|---|---|---|---|---|
| **Tutoretzen banaketa**<br>*Distribución de tutorías* | | Urteroko irakasle aldaketak | | Ez dago ikastetxearen esku. |
| **Tutoretza Plana**<br>*Plan de Acción Tutorial* | Funtzionala da. | Irakasleek dokumentua bere osotasunean ez dute ezagutzen. | Dokumentuaren helburua ez dute argi ikusten | Ikasturte hasieran klaustro osoari dokumentu hau azaldu.<br>Bakarkako tutoretza saioak burutzeko denbora finkatu ordutegi barruan. |
| **Ordutegiak**<br>*Horarios* | | Geroago eta zailtasun gehiago ordutegiak egiteko | Geroago eta baldintza gehiago kontutan izaten ditugulako baliabide hauek hobeto aprobetxatzeko. | |
| **Esklusiben banaketa**<br>*Uso de las exclusivas* | Talde-lana burutzeko aukera ematen dute. | Programatutako lanak bukatzeko zailtasunak | – Batzuetan denboraren aprobetxamendu urria.<br>– Eskainitako denbora ez da beti programatutako lana egiteko erabiltzen.<br>– Aurre ikusi gabeko gaiak landu behar izan dira. | – Proposatutako lanen antolaketa eta jarraipena egiteko lan-taldeak eratu eta denborak markatu.<br>– Proposatutako lanak dagoen denbora errealari egokitzen ahalegindu. |
| **Laguntza eta errefortzuen eraginkortasuna**<br>*Eficacia de los apoyos y refuerzos* | Ikasturte hasieran finkatzen dira eman beharreko laguntzak. Arreta berezia eskaintzen zaie errepikatzaileei eta behar bereziak dituzten ikasleei. laguntza hauek ikasle bakoitzaren HIBP-n erregistratzen dira. | HIBP-k diseinatu eta jarraipena egiteko zailtasunak | – Emandako laguntzak erregistratzeko ohitura falta<br>– Irakasle batzuek ez dute dokumentu honen beharrik ikusten eta ez dute betetzen. | – Ikasturte hasieran zikloetan azaldu dokumentu honen funtzioa. |

| | **Alderdi positiboak**<br>Aspectos positivos | **Zailtasunak**<br>Dificultades | **Zergatiak**<br>Causas | **Hobekuntza proposamenak**<br>Propuestas de mejora |
|---|---|---|---|---|
| **Organo kolegiatuen funtzionamendua**<br>*Funcionamiento de los órganos colegiados*<br>*OGG, klaustroa, zuzendaritza taldea* | OOG-ko batzorde hauek funtzionatzen dute:<br>- Iraunkorra/pedagogikoa<br>- Ekonomikoa<br>- Jai batzordea<br>- Eskolaz kanpoko ekintzak<br>- Testu liburuen kudeaketa solidariokoa | OOG-ko batzordeetako gurasoen partaidetza urria izaten jarraitzen du. Batzordeak eratzeko zailtasun handiak (guraso gutxi daude prest)<br><br>Batzorde ezberdinetan jorratutako gaiak ez dira sarritan guraso guztiengana iristen. | Ez dute adostu zein bide erabiliko duten informazioa zabaltzeko | Batzordeak eratzeko gurasoen partaidetza nola lortu aztertu.<br><br>Adostu zein bide jarraitu behar den batzordeetako informazioa gurasoei zabaltzeko eta gurasoen iritzia batzordean azaltzeko. |
| **Pertsona bakarreko karguen funtzionamen.**<br>*Funcionamiento de los cargos unipersonales*<br>*Zuzendaria, ikasketa burua, idazkaria* | | IUP aurrera eramateaz gain, Hezkuntza Sailak gehitzen dituen lanak burutu behar izatea (aurre ikusten ez direnak) | IUPko helburuak eta ekintzak planifikatzerakoan ez ditugu denbora errealari ondo egokitzen (lan gehiegi planifikatzen ditugu) | Hobeto planifikatu IUP-eko ekintzak. |
| **Beste batzuk**<br>*Otros* | | | | |

## 3.1.2. Esperientziak, programak eta proiektuak
*(proiektuetako batzorde buruek, batzordearen balorazioaren ondoren)*
**experiencias, programas y proyectos**

☐ **Esperientziak, programa edota berrikuntzak ikastetxean** *Experiencias, programas y/o proyectos que se desarrollan en el centro:*

**izenburua edo gaia** *título o tema*

| |
|---|
| **HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROIEKTUA** |

| **ondorioak**<br>*conclusiones* | **jarraitzeko proposamenak eta baldintzak**<br>*propuestas y condiciones de continuidad* |
|---|---|
| – Proiektu honen oinarrizko helburua euskararen erabilera areagotzea da.<br>☐ Ikasturte honetan ahozkotasuna lantzeko maila bakoitzean ekintza desberdinak proposatu dira eta hauek era egokian baloratu dira.<br>☐ Kanpaineri dagokionez, orokorrean kanpaina guztiak egin dira. | – Euskeraren erabilera bultzatzeko, momentu batzuetan ( jolasordua eta gero egun konkretu batzuetan), ikastetxe guztia ekintza berdina burutzen egotea proposatzen da.<br>– Kanpaina batzueri dagokionez hausnarketa hau egin beharko litzateke: Kanpaina batzuk girotze kanpainak dira, baina benetan aztertu beharko litzateke hauekin helburua betetzen den ala ez. |
| – Proiektu honen bigarren helburua euskal kultura bultzatzea izanik ikastetxean ohikoak diren ospakizunak antolatu dira.Ikasleek parte hartze zabala izan dute eta oso positibotzat baloratzen dugu.Kasu honetan, ospakizun hauek Batzorde Pedagogikotik bideratu dira. | – Euskal kultur ekintzak bultzatzen jarraitu beharko dugu.<br>– Ekintza hauek aurrera eramateko, lanak espezifikoekin banantzea proposatzen da. |

**izenburua edo gaia** *título o tema*

**IKASTETXEKO AGENDA 21**

| **ondorioak**<br>*conclusiones* | **jarraitzeko proposamenak eta baldintzak**<br>*propuestas y condiciones de continuidad* |
|---|---|
| Kurrikulumari dagokionez, ekintza gutxi batzuk txertatuta geratzen dira programazioetan, gehienetan maila baxuetan; 2. eta 3. zikloetan gaiari lotutako ekintza puntualak egiten dira , baina ez dira txertatuta geratzen. | Oraindik ikastetxean erabiltzen den metodologia (Txanela) nahiko berria da eta programaketetan txertatzeko EA21eko proposamenak, hobeto ezagutu behar da. |
| -Kudeaketan, ahalegin handia egiten da ikastetxe osoan, hainbat materialen birziklapena eginez eta bultzatzen (plastikoak, papera, materia organikoa, tapoiak, boligrafoak, arropak, pilak) | -Kudeaketan, lan handia egin arren , berehala ahazten da, honek suposatzen duen ardura eta lanagatik. Irakaslek, ikasleek, garbitzaileek eta jantokiko langileek parte hartzen dugu.<br>Gero eta gehiago saiatzen gara. |
| -Parte hartzean, oraindik lan handia dago egiteko. Jolasorduetan ikasleekin batu izan gara, baina gehienetan ekintza ezberdinak egiteko, bilera gutxi batzuk hausnarketarako izan dira ( hau herri diagnostikoa egiten egon garenean bereziki). Gainera zikloko bildu izan gara eta talde osoko ikuspegia ez da ikusten, baina horretarako denbora gehiago izatea ezinbestekoa da. | - Parte hartzean, ikasleekin lan ezberdinak egiteko ordu finko bat izan arte, jolasorduko saioak izango dira erabili ahal ditugunak, eta denbora gutxi horretan ahal duguna egingo da. |
| * Agendako ordezkariekin egiten den irteera balorazio positiboa izaten du, gainera ekintza hau geletan aurkeztea eskatzen du, gaitasun ezberdinak landuz ( IKTak, komunikazioa,talde lana,...) | * Eskolako Agenda 21ek aukera ematen duen bitartean horrelako irteera egiten jarraituko dugu, irteera batekin asko zabaltzen delako ikusitakoa, gero geletara, lagunei, gurasoei zabaltzen delako. irteera batekin 6 gelara arte heltzen da egindako ekintza. |
| *Udaletxetik edo herriko estamendu ezberdinetatik etortzen zaizkigun proposamenetan parte hartzen dugu ikastetxean: Zarata inguruko tailerrak, Ingurugiroko tailerrak, | * Udaletxearekin harremanetan egotea oso garrantzitsua iruditzen zaigu proiektu honetan, ez bakarrik plenorako egiten den prestakuntza, baizik eta gure erreferentea delako gauzak hobetzeko edo hobetzen eskatzeko. |

**izenburua edo gaia** *título o tema*

| |
|---|
| **IKASTETXEKO IKT PROIEKTUA** |

| **ondorioak**<br>*conclusiones* | **jarraitzeko proposamenak eta baldintzak**<br>*propuestas y condiciones de continuidad* |
|---|---|
| Proiektu honetan gure erronkak honako hauek dira:<br><br>➢ Arlo currikular ezberdinetako edukiak lantzeko erabil daitezken IKT baliabideak ezagutu, aukeratu eta arlo curricular ezberdinetako programazioetan txertatu.<br><br>➢ Ikasleen IKT curriculuma osatzen eta eguneratzen jarraitu.<br><br>➢ IKT-ak ikasgelako egunerokotasunean integratzen lagunduko duen IKT hornikuntza ahalbideratzeko urratsak ematen jarraitu. | IKT-ak gure eguneroko jarduneran modu koherentean eta eraginkorrean integratzeko, txanelak planteatzen dituen jarduerak aztertzen jarraituko dugu eta hauek unitate didaktikoetan txertatuko ditugu.<br><br>Nahiz eta batzorderik ez dugun eratuko, koordinatzaileak berritzeguneak antolatzen duen mintegira joaten jarraituko du. Honetaz gain, blogeko igoeren jarraipena batzordetik bideratuko da.<br><br>Ikasturte hasieran, irakasle berriei saio bateko formakuntza eskeiniko zaie eta bertan sarea, web orrialdea eta ikastetxeko funtzionamendua azalduko zaie<br><br>Honetarako ” IKTekiguneak” eskeintzen dituen tutorialak erabiliko ditugu beste batzuen artean. |

**izenburua edo gaia** *título o tema*

| IKASTETXEKO IK/KI PROIEKTUA (Ikaskuntza kooperatiboa) |
|---|

| **ondorioak**<br>*conclusiones* | **jarraitzeko proposamenak eta baldintzak**<br>*propuestas y condiciones de continuidad* |
|---|---|
| - Metodologia hau ikastetxean hedatzeko hiru ikasturteko formakuntza jaso dugu Lagorekin eta ikasturte honetan berritzegunera joaten jarraitu dugu.<br><br>- 1. mailako tutoreak, 3. Mailako tutore bat eta 6 mailako beste bat, hasiera fasean egon dira.<br><br>- 2. , 3. Eta 4. Mailakoak aldiz orokortze fasean egon dira.<br><br>- Gainontzekoak formakuntza bukatuta daukate.<br><br>- Gehienak planak egiten egon dira.<br><br>- Ikasturte hasieran erabaki batzuk hartu genituen ikastetxe mailan eta ikasturtean zehar hoiek osatzen ibili gara.<br><br>- Horretaz gain talde lanaren garrantzia ikusteko, Lagok proposatzen dituen dinamikak egiten egon gara eta hauek mailakatu ditugu.<br><br>- Buruhausgarria teknika erabiliz proiektu bat gauzatu dugu mailaka<br><br>- Ikastetxeko IK/KI proiektoaren lehen hastapenak enaten hasi gara.<br><br>- Ikastetxean IK/KI batzordea eratu da eta mailako/zikloko lana antolatzeko osteguneko esklusiba ordua erabili da. Oso baliogarria izan da lan antolatzeko eta zalantzak argitzeko.<br><br>- Aurten egindako lanaren balorazioa orokorrean ona izan da. | Ikasturte hasieran komenigarria da klaustrokide guztiei IK/KI proiektuan gaudela jakinaraztea eta honen antolakuntza zein den esatea.Horretaz gain, ikasturtean zehar irakaslegoari formakuntza saioak eskaini behar zaizkio dagokion mailari egokituak.<br><br>Metodologia honen ezagutza irizpide garrantzitsu bat izango da tutoretzak banantzerako orduan.<br><br>Batzordea astero elkartuko da eta maila/zikloko lana antolatzeko esklusiba ordu bat erabiliko da, aurten egin den bezala.<br><br>Batzordeko lana ondo antolatzea beharrezkoa da irakasleen lana ondo bideratzeko.<br><br>Datorren ikasturtean helbururik garrantzitsuena planak aztertzea izango da eta buruhausgarria teknikaren bidez landutako gaiaren hausnarketa egitea.<br><br>Horretaz gain ikastetxeko IK/KI proiektua garatzen jarraituko dugu.<br><br>Komenigarri izango litzateke , zehar konpetentziak ebaluatu ahal izateko,IK/KI ebaluatzeko sortutako txantilloia praktikan ipintzea. |

**izenburua edo gaia** *título o tema*

| **IKASTETXEKO ELKARBIZITZA PLANA** |
|---|

| **ondorioak**<br>*conclusiones* | **jarraitzeko proposamenak eta baldintzak**<br>*propuestas y condiciones de continuidad* |
|---|---|
| Ikastetxeko Elkarbizitza Planaren garapenean, ikasturte honetan tratu txarren aurrean, esku-hartze maila bakoitzean gauzatuko diren ekintzak zehaztu ditugu.<br><br>Berdinen arteko tratu txarrei aurre egiteko programa zehaztu da.<br><br>Lehen esku hartze mailan banakako tutoretzak eta postontziak ezarri dira. Tutoretza saioak berrantolatu dira eta " ni eta eskola" autoinformea pasatu da.<br><br>Bigarren eta hirugarren esku hartze mailari dagokionez barne protokoloa zehaztu da eta jazarpen kasuetarako materiala bildu eta antolatu da.<br><br>Horretaz gain BIZIKASI ekimenaren formazioa jaso dute ikastetxeko bi pertsonek eta honen ondorioz talde dinamizatzailea sortu da.<br><br>Bestalde hezkidetza Planaren garapenean jolastokiko espazioaren erabilera antolatzen aritu gara. Espazioa guneka mugatu da eta bertako funtzionamendua arautu dugu.<br><br>Honetarako ikasleekin asanbladak egin ditugu. | Datorren ikasturtean postontzien erabilera ikasleekin landuko da, aurten eman dioten erabilera oso egokia ez delako izan.<br><br>Programa martxan jarriko da eta urtero ikasturte hasieran irakasle berriei azalduko zaie.<br><br>"Ni eta eskola" autoinformea bi aldiz pasatuko dugu ikasturtean zehar.<br><br>Antolatu gabe gelditzen diren tutoretza saioetan ezinbestekoak diren gaiak landuko ditugu: enpatia, asertibitatea, talde kohesioa, giza trebeziak….<br><br>Hezkidetza Planaren barruan:<br>▪ Jolastokiko arauak disainatzen hasiko gara.. |

**izenburua edo gaia** *título o tema*

| |
|---|
| **ELEANIZTASUNERANTZ** |

| **ondorioak**<br>*conclusiones* | **jarraitzeko proposamenak eta baldintzak**<br>*propuestas y condiciones de continuidad* |
|---|---|
